



HAWAIK PARADISUA DAKAR GOGORA, lasaitasuna, askok noizbait gozatu nahiko luketen opor-leku klasikoa eta exotikoa. Olatuen gainean ibiltzea gustuko dutenentzat ere, ezinbesteko tokia da Hawaii. Biziak etengabe egiten du bor-bor Ozeano Bareko artxipelago honetan: bor-bor kanpoan, zein barruan.

Jarduera magmatikoa etengabea da, eta erraz ikus daiteke hori hainbat tokitan. Batez ere, uharte nagusian, Big Island-en. Han dago Sumendien Parke Nazionala eta han dago Hawaiiko sumendi aktiboena ere: Kilawea handia.

1984an berriz ere iratzartu zenetik, Kilaweak ez dio laba jaurtitzeari utzi.

Hawaiiko SUMENDIAK



Batzuetan isil, geldo, samur; besteetan, berriz, bortitz eta azkar. Erritmoa edozein dela ere, sumendia beti dago aktibo. Azken 25 urteetan uhartearen azalera 200 hektarea hazi da Kilaweak jaurtitako labaren eraginez. Laba horrek itsasoko urarekin topo egiten duenean, ke-zutabe trinkoak sortzen ditu. Ikuskizun paregabea da.

Hawaiiko uharteek itsas hondoa sortutako hainbat sumendiren jardueran dute jatorria. Geologian “gune bero” deritzon magma-iturri batetik jaio ziren sumendi horiek guztiak. Teoria horren arabera, Ozeano Barearen azpiko plaka tektonikoa ipar-mendebalderantz mugitzen ari da, eta “gune beroa”, berriz, geldirik dago. Horregatik, pixkanaka, sumendi berriak sortuz doa. Gaur egun, korrante bero horren bihotza Big Islandetik 30 bat kilometro hegoalderantz dago. Han, sumendi berri bat jaiotzen ari da. Oraindik itsas mailaren azpitik 975 metrora dago, baina jada badu izena. Loi deitzen da. ●



©ISTOCKPHOTO.COM/HAPA PHOTO



©ISTOCKPHOTO.COM/JHESTON